



2020 - 2024

ZEBERIOKO II BERDINTASUN PLANA

AURKIBIDEA

1.	Planaren ikuspegia	4
2.	Esparru teorikoa eta lege esparrua	6
3.	Planaren ezaugarriak	13
4.	Diagnostikoak jasotako hobekuntza eremuak	14
5.	2020-2024 Ekintza plana	16
6.	Planaren kudeaketa	27

Dokumentu honetan, Zeberioko Udalak berdintasun-politikaren arloan 2020-2024 aldirako duen jardura estrategikoari eusten dioten edukien proposamena aurkezten da. Hainbat aurrera-pausu eman dira azken urteetan lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal mailan ere aurrera-pausu handiak ematen ari dira maila legalean. Zentzu horretan, legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den Zeberioko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren helburua.

Zeberioko I. Berdintasun planaren indarraldia agortuta, 2020an zehar egitasmo hark emandakoak ebaluatu dira. Ebaluazio txosten horretan oinarriturik, eta herriko eragile ezberdinen kolaborazioari esker sortu da Zeberioko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. plan hau, Zeberioko udalean bertan, eta udaletik herrira burutzen diren ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzeko asmoz.

Esan bezala, herriko eragile ezberdinen inplikazioa ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan, eta exekuzioan ere bereziki garrantzitsua izango da herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea.

Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak markatu dira, eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak ezarri dira.

Plan hau udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan behar da; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.

01. Planaren ikuspegia

Zeberrioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak kontuan ditu EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren printzipioak eta lan-estrategiak.



Gobernu ona

Gobernu onak gobernagarritasun-eredurarekin du zerikusia. Gobernagarritasun-ereduak ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-esparruak kudeatu eta aurrera egiten du, genero-ikuspegia gehitzen duen kultura hainbat arlotan baliatuz: gardentasunean; herritarren parte-hartzean; lankidetzaren publikoa eta pribatua ikertzeko eta gauzatzeko molde berrien beharrezan; administrazioen arteko lankidetzan; politika publikoen ebaluazioa sustatzean, politika publikoak hobetze eta helburuak lor ditzaten bideratze aldera. Azken

batean, berdintasunean oinarritutako eredu batera igarotzea da kontua, efizientziatik eta gardentasunetik abiatuta, kontuak emanez eta gizartearen partehartzearekin.

Emakumeak ahalduntzea

Nazio Batuen estatu kideek 2030 Mundu Agenda berria eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) onartu zituzten 2015ean. Horrekin, XXI. mendeak daraman bidea aldatu nahi dute, txirotasuna, desberdintasunak bizitzako arlo guztietan eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatuz. Halere, NBE Emakumeak erakundeak dioen bezala, ezin da ezer hobetu aldez aurretik emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunerako gizarte-eraldaketaren baldintza eta bermea.

Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko

Nazio Batuen Erakundeak adierazten du ekonomiak eraldatu eta eskubide ekonomiko eta sozialak baliatzeko, beharrezkoa dela lehentasunezko hiru esparrutan jardutea: emakumeentzako lan egokian, genero-ikuspegia duten gizarte-politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan. Aintzat hartuta, politika ekonomikoetako eta sozialetako gaien artean emakumeen eskubideak sartzen baldin badituzte, giza garapen iraunkorrari laguntzen zaiola, hori lanerako ardatz izango dela proposatzen da, egin beharreko bidean NBEk adierazitako lehentasunak jasotzen baititu.

Illo beretik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen 2016ko uztailaren 21eko Akordioaren arabera, behar-beharrezkoa da egungo eredu ekonomikoari buruz eta eredu ekonomikoak garapen jasangarrian duen eraginaz eztabaida publikoa bultzatzea, lagun guztien eskubideak bermatze aldera.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko biziak

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Emakumeen aurka egiten da, emakumeak izate hutsagatik. Egun dagoen ezberdinkeriazko gizarte-eredu jerarkikoan, genero-bereizkeriaren eta gizonek duten emakumeen gaineko boterearen ondorioa da, eta emakumeek gizonen mendeko izan behar dute, azken batean.

Emakumeen aurkako ekintzatzat jotzen dira generoarengatik egindako indarkeria-ekintza guztiak, jendaurrean nahiz pribatuan, emakumei kalte edo oinaze sexual,

psikologiko nahiz ekonomikoa ekartzen dizkietenak edo ekar diezazkieketenak, bai eta indarkeria-ekintzak egiteko mehatxuak, derrigortzea zein askatasun-kentze arbitrarioa ere.

COVID – 19a

COVID-19aren ondorioz, azken aldiko osasun- ekonomia- eta gizarte-krisi garrantzitsuena gertatu da, eta agenda eta lehentasun politiko eta sozialak aldatu dira mundu osoan.

Pandemia desberdin ari da eragiten emakumeengan eta gizonengan eta datuek erakusten digute emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela krisi honen ondorio negatiboen aurrean. Horregatik, premiazkoa da genero-ikuspegia txertatzen duten neurriak hartzea II Plan honen indarraldian , krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideen erabileran eta berdintasunerako bidean atzera egitea saihesteko.

02.

Lege eta teoria esparrua

Azken urteotan emakumeei eta gizonei aukera-berdintasunerako eskubidea aitortzen dieten lege nahiz arau juridiko ugari onartu dira nazioartean, Europan, estatuan, baita udalerrietan ere. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubideak berariaz aintzatestea da horien helburua, eta honako Berdintasun Plan honen aterpe zabala dira, bai erakundeen bai legeriaren aldetik.

Jarraian, genero-politiken egitura teorikoan eta legalean nabarmendu diren mugarri batzuk aipatuko ditugu:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Harpideko Oinarriak Arautzekoa (2003ko abenduaren 21ean eguneratua)
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Plana (2000-2003)
- Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatua eta Bizkaiko Batzar Nagusiek onartua
- Lanean eta enpleguan emakume eta gizonen arteko aukeren eta tratabideen bermerako premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Dekretua
- Aukera Berdintasunaren Estatu Plana (2018-2021)
- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen (03/12/21ean eguneratua).

Legearen 27.3. artikuluan xedatzen denez, udalek zerbitzu sozialen prestazioetan, aukera berdintasunaren garapenean eta emakumeen kontrako indarkeriaren

prebentzioan eskumenak jaso dezakete. Testuinguru honetan tokiko administrazioak protagonismo argia du, legalki aukera emanaz genero berdintasunean herritarrek dituzten beharrak eta asmoak asetzeko ekintza eta zerbitzuak antolatzeke, beti ere beste Administrazio Publikoen eskumenen galtze edo oztoporik suposatu barik.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Lege honen baitan argi eta garbi zehazten dira zein diren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, administrazio maila bakoitzak dituen eginkizunak, Autonomia Estatutuko 10.39 artikuluan, Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7 c.2. artikuluetan, zein Estatutuan (9.2 artikulua) eta Erkidegoko arauetan (Europar Batasunaren Ituneko 3.02 artikulua) ezarritakoak dakartzaten eskumenetatik abiatuta; izan ere, aipatutako lege eta arauak betebehar bi ezartzen dizkiete herri aginteei: bat, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna eta erreala izateko baldintzak bultzatu eta oztopoak eraistea, eta, bestea, berdintasuna sustatzea herri-aginteen politika eta ekintza guztietan.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako zeregin hauek ezarri dizkio herri-administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia txertatzeko.
- Ekintza positiboko neurriak betetzea.
- Programak egitea, Jaurilaritzaren plangintza orokorraren esparruaren baitan eta Foru Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren baitan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun egoerak ezagutu ahal izateko.
- Tokian tokiko eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Emakumeen eta gizonen ezberdintasun egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei

oinarrizko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako irisgarritasuna izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek tokiko eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Tokiko eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak frogatzen duenez, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, funtsezko aurrerapausoa da berdintasun-politiken esparruan. Izan ere, arautu egiten du EAEko herri-administrazioaren jarduna, eta, hala dagokionean, erakunde pribatuena, berdintasunaren printzipio juridiko unibertsalean, bai tratu bera lortzeari dagokionez, baita aukera-berdintasunari dagokionez ere.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana egiteari eta egituratzeari dagokienez, Legean oinarritzko lau eginkizun zehaztu dira:

1. Plana gauzatzean botere publikoen jardura arautu behar duten oinarritzko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
2. EAEko botereen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea (I. eta II. tituluak).
3. Eginkizun eratzailea, hots, esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak eratzea (III. titulua).
4. Oinarritzko edukiak definitzea.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa.

2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratutako Legea, batetik, honako premisa honetan oinarritzen da: "emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza-eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da". Bestalde, Legearen oinarritzko beste premisa baten arabera, legearen aurrean berdintasun formal erabatekoa onartzea funtsezkoa da, eta hobetu egin behar da araugintzaren bidez. Araugintza hori dela medio, "oraindik ere geratzen diren sexuagatiko diskriminazio agerpen guztiei aurre egin behar zaie, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan, gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna bultzatzeko, eta hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak mugiaraziz".

Besteak beste, Legea honako funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

21.1 artikulua adierazten duenez, "bere eskumenak betetzean toki-erakundeek berdintasunerako eskubidea gain hartuko dute, eta gainerako herri-administrazioekin lankidetzan arituko dira horretarako". Horrenbestez, 3/2007 Legeak tokian tokiko administrazioei dagozkien eskumenetara garamatza, hots, apirilaren 2ko 7/1985 Legean (toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen) orokorrean adierazten direnetara, eta EAEko udalerriei dagokienez, zehazki 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan adierazten direnetara.

Europako Gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek sustatu dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 5. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan. "Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu".

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte) proiektuko bazkideetako bat da, eta gero eta gehiago dira gutuna sinatu duten udalak. Gutuna izenpetzen duten udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako plana egin eta gauzatzeko. Planak era parte-hartzailean egina egon behar du, ebaluazio-irizpideen arabera. Gainera, plana abian jartzeko behar adina baliabide izan behar dute udalek.

Europako Gutunak aitortzen duenez, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak "esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko".

Arau horien oinarria ondoren zehaztuko diren Berdintasunerako Printzipioetan dago: (4/2005 Euskal Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

1. TRATU-BERDINTASUNA. Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Legearen ondorioak:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla eta; haurdun egonda edo ama izanda, esaterako; beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal agente publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten edonolako jardueretarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta, administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-agenteek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla eta, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2. AUKERA BERDINTASUNA. Euskal herri-agenteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera

berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, esan beharra dago agintea eta baliabide eta gizarte-onura eta onura ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).

3. ANIZTASUNA ETA EZBERDINTASUNA ERRESPETATZEA. Herri-agintek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuak errespetatu daitezen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrezko dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna.

4. GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA. Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoreetarako, honako hau da “Genero-ikuspegia txertatzea”: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta ekintza zehatzak txertatzea.

5. EKINTZA POSITIBOA. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-agintek denboran ondo mugatutako berariazko neurriak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6. SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA. Euskal aginte publikoek sexuaren arabera rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko

desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonen eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta horrek, gainera, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eragiten du.

7. ORDEZKARITZA OREKATUA. Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondorioz, kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkariak dutenean.

03. Planaren ezaugarriak

Planaren helburu nagusia udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzea da. Horretarako, toki mailan berdintasun politikak martxan jarri behar dira, arauzko berdintasunaren eremutik harago, eta aukera eta emaitza berdintasun erreala bermatzeko xedea duten ekintzak burutu behar dira. Honako ezaugarriak ditu:

Lau urteko indarraldia dauka, 2020-2024 aldirako diseinatua dago.

Aldez aurretik egindako ebalukaetarekin, datuen eguneraketa eta aurreko Planarekin erlazionatuta egin da, modu parte-hartzailean, Emakumea eta berdintasun batzordearekin, udal langileekin eta udalerriko gizarte eragileekin batera.

Plan irekia eta malgua da, urteko planak definitzeke.

Ebaluatu daitekeen plana da, eta lortzen diren helburuak neurtzen joateko adierazleak kontuan hartu dira.

Aurreikusitako denboran eta eskura dauden baliabideak kontuan izanda, Udal arlo guztiek eta Erakundeek garatzeko helburu eta ekintzak jaso ditu.

Udalerri mailako tresna bat da eta konpromiso politikoa, teknikoa zein herritarra ere eskatzen du.

04.

Diagnostikoan jasotako hobekuntza eremuak

Ondoren, diagnostikoan jasotako beharrianak azalduko dira, lau esparru nagusitan bereizita, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako EAEko VII planean aurkeztutako esku-hartze eremuen arabera:

- ✓ Gobernu ona bermatzeko programak eta neurriak.
- ✓ Emakumeen ahalduntzea.
- ✓ Ekonomiak eta gizartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko.
- ✓ Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko biziak.

Herri galdeketa eta eragileen artean jasotako hurrengo 4 ardura edo proposamenak nabaritu dira oso argi, hau da:

- Sentsibilizazioa lantzea gure gizartean oraindik ere dirauten estereotipo eta iritzi sexistak gainditzeko (eskolan, gazteekin eta gizartean orohar)
- Emakumeen lan baldintzak hobetzea.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa hobetzea
- Mendekotasuna duten pertsonen arretarako baliabideak eta programak hobetzea (txikiak, nagusiak, ezintasuna duten pertsonak eta abar)

Bestalde jasotako beste behar batzuk ere aipatzen dira hurrengo planaren ardatz ezberdinetan sailkatuz.

Gobernantza

- ✓ Udalaren Berdintasun Plana gehiago zabaltzea
- ✓ Berdintasun klausulen txertaketa udal kontratu eta hitzarmenetan indartzea
- ✓ Informazioa sexuz bereizita jasotzea (memoria, erregistro orokorrean, kontratatzen diren enpresetan zuzendaritzan dauden pertsonen datuak sexuz bereiztu...).
- ✓ Berdintasun batzarrak irekiak egin.

- ✓ Politikari eta teknikariei etengabeko formakuntza eman.
- ✓ Ordenantza berrietan genero ikuspegia txertatu.
- ✓ Kultur elkarteekin genero ikuspegia gehiago landu.
- ✓ Udal eragileen artean berdintasuna sustatzeko gidak eta tresnak zabaltu.

Gizarte Antolaketa erantzunkidea eta balio aldaketa

- ✓ Hezkidetza programak bultzatu
- ✓ Umeekin sentsibilizazio ekintzak egin (kontu kontaketak...)
- ✓ Berdintasunean oinarritutako prestakuntzak eta jarduerak burutzea, haur eta gurasoei zuzenduta.
- ✓ Aitatasuna eta erantzunkidetasunari buruzko tailerrak antolatu.
- ✓ Hezkidetza programak bultzatzen jarraitzea.

Jabekuntza

- ✓ Emakumeen kirolak ikustarazi
- ✓ Emakumeen Banakako ahalduntzea lantzeko programak sustatu.
- ✓ Emakumeen sareak bultzatzea.
- ✓ Emakumeen elkarten sorkuntza sustatu.
- ✓ Emakumeen sexualitatea lantzeko ekintzak burutu.
- ✓ Herriko emakume baserritarren diagnostiko bat egin.
- ✓ Emakume baserritarren lana ikustarazi.

Emakumeen kontrako Indarkeria

- ✓ Egindako udal protokoloa herritarrei zabaltu
- ✓ Indarkeria prebenitzeko ekintzak egin

05. 2020-2024 EKINTZA PLANA

Zeberioiko Udalaren Berdintasun Plana honela egituratzen da: 4 esku-hartze esparru, 10 programa, 15 helburu eta 40 ekintza ditu.

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	EKINTZAK
Gobernu ona	3	8	19
Emakumeen ahalduntzea	3	3	5
Ekonomiak eta gizartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko	2	2	6
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizimoduak	2	2	10
GUZTIRA	10	15	40

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK
Gobernu ona	1. Konpromiso politikoa	1.1. Emakume eta gizonen berdintasunaren konpromisoa, plangintza eta kudeaketa hobetu.
		1.2. Berdintasuna Sailaren irudia indartzea udal barnean eta herri mailan.
		1.3. Berdintasun Saila udaleko gainontzeko sailekin eta herriko eragile sozialekin koordinatzea.
	2. Berdintasunerako Gaikuntza	2.1 Udaleko langile tekniko eta politikoen berdintasun-arloko trebakuntza indartzea
	3. Genero ikuspegia Lan-prozeduretan	3.1. Estatistika eta ikerketetan genero ikuspegia integratzea.

		3.2. Komunikazioan berdintasun ikuspegia txertatzea.
		3.3. Berdintasunaren inguruko edukiak sartzea lan publikoaren eskaintza eta sustapenerako prozesuetan.
		3.4. Genero ikuspegia diru-laguntza, kontratu, aurrekontu eta programetan txertatu.
Emakumeak ahalduntzea	4. Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoari lagundu, aniztasuna kontuan hartuta.	4.1. Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa hobetu, aniztasuna kontuan hartuta
	5. Emakumeen elkartegintza	5.1. Emakumeen elkartegintza sustatu
	6. Emakumeen oroimen historikoa	6.1. Historian zehar izandako emakumeen ekarpenak berreskuratu
Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko	7. Berdintasunaren aldeko baloreak sustatzen	7.1. Herritarrek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu
	8. Kontziliazioa eta erantzukidetasuna	8.1. Zainketak bizitzaren eta gizarte-erdiguneko dimentsio gisa aitortzeko bidean aurrera egin.
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko biziak	9. Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa	9.1. Indarkeriarik gabeko jarrera ereduak sustatzea eta emakumeenganako indarkeriazko jarreraren prebentzioan lan egitea.
	10. Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta eta babesa	10.1. Babesa eta osoko arreta bermatu indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei.

1 programa: Konpromiso politikoa

1.1. Helburua: Emakume eta gizonen berdintasunaren konpromisoa, plangintza eta kudeaketa hobetu.									
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	
	20	21	22	23	24				
1. Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitzea.							Berdintasuna	Aurrekontuen igoera	
2. Berdintasunaren aldeko urteko ekintzen plangintza prestatzea eta urtero mahai politiko batean aurkeztea.							Berdintasuna	Berdintasunaren aldeko konpromiso politikoen betetze maila	
3. Egun berezietan (azaroak 25, martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28...) berdintasunaren aldeko adierazpen publikoak egitea.							Berdintasuna	Egindako adierazpen publikoak.	

1.2. Helburua: Berdintasuna Sailaren irudia indartzea udal barnean eta herri mailan.									
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	
	20	21	22	23	24				
4. Web orria eguneratua mantendu, eskura dauden baliabideak konpartitzeko edota burutzen diren ekintzen berri emateko.								Web orrira igotzen diren berrien kopurua.	
5. Berdintasun Saitetik abian jartzen diren ekimen eta proiektu guztien berri ematen jarraitu								Udal arloetan ebidentziak jasotzea, urtero	

1.3. Helburua: Berdintasun Saila udaleko gainontzeko sailekin eta herriko eragile sozialekin koordinatzea.									
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	
	20	21	22	23	24				
6. Udal teknikari eta herriko eragile sozial ezberdinekin berdintasuna bultzatzeko programa bat sortzea.							Berdintasuna	Batzordea sortuta	

2. Programa: Berdintasunerako gaikuntza

2.1. Helburua: Udaleko langile tekniko eta politikoen berdintasun-arloko trebakuntza indartzea								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
7. Generoan eta berdintasun-politiketan Udaleko langile eta politikariei prestakuntza-plan bat ezartzea.							Berdintasuna	Urteko parte-hartzea, sexuaren eta karguaren arabera. Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10) Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio maila (1-10)

3 Programa: Genero ikuspegia lan-prozeduretan

3.1 Helburua: Estatistika eta ikerketetan genero ikuspegia integratzea.								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
8. Udaleko imprimakietan eta datu baseetan sexu aldagaia sartzea.						-	Berdintasuna	Urtero ebidentziak jaso udal sailetatik.
9. Kultur, kirol, jai, eta beste edozein jarduera motan partaideak sexuaren arabera jaso.						-	Berdintasuna	Urtero ebidentziak jaso udal sailetatik.
10. Jasotako datuak ustiari, emakume eta gizonek bizi duten egoera, baldintza, jomuga eta premiak identifikatzeko.						-	Berdintasuna	Txostena eginda

3.2 Helburua: Komunikazioan berdintasun ikuspegia txertatzea.								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
11. Hizkuntza ez sexistarako gidaliburuak zabaltzea udal teknikarien artean							Berdintasuna	Zabaldutako material kopurua
12. Herritarrei zuzendutako informazio ofiziala hizkuntza berdinez egiten jarraitzea.						-	Berdintasuna	Ebidentziak jasotzea, urtero.

13. Etengabeko aholkularitza zerbitzua eskaini udal langileei, lengoaia inklusiboaren inguruan sor daitezkeen zalantzei dagokienez.							Berdintasuna	Urteko kontsulta kopurua, sexuaren eta karguaren arabera.
---	--	--	--	--	--	--	--------------	---

3.3. Helburua: Berdintasunaren inguruko edukiak sartzea lan publikoaren eskaintza eta sustapenerako prozesuetan.								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
14. Enplegu publikorako eskaintzak aztertu egon daitezkeen desoreken aurrean, hauek murrizteko neurriak proposatuz.						-		Argitaratutako enplegu eskaintza kopurua.
15. Enplegu publikorako azterketetan berdintasunarekin harremandutako edukiak sartu.								Egindako enplegu publiko eskaintza kopurua. - Berdintasun edukiak sartu diren eskaintza kopurua.

3.4. Helburua: Genero ikuspegia diru-laguntza, kontratu, aurrekontu eta programetan txertatu.								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
16. Sail ezberdinetako diru laguntzen oinarriak berrikusi eta genero irizpideak txertatu						-		Berdintasun arloko klausulak gehituta dituzten kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen kopurua, urtean.
17. Udaleko ordenantza orokorrean enpresa nahiz erakundeei dirulaguntzak emateko genero irizpideak onartu.							Berdintasuna	Irizpideen onarpena.
18. Udal aurrekontuak genero ikuspegitik aztertu eta ebaluazio txosten bat egin							Berdintasuna, Idazkaritza eta alkatetza.	Ebaluazio txostena eginda.
19. Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko neurriak hartu.							Berdintasuna, Idazkaritza eta alkatetza.	Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko zenbat neurri hartu den.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

4 programa: Emakumeen ahalduente pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoari lagundu, aniztasuna kontuan hartuta.

4.1. Helburua: Emakumeen ahalduente pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa hobetu, aniztasuna kontuan hartuta								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
20. Emakumeen ahalduenterako ekintzak burutu (gimnasia emozionala, adibidez) aniztasuna kontuan hartuz (emakume nagusiak, etorkinak...).						-	Berdintasuna	Zenbat jarduera garatu diren Zenbat emakumek parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...) Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
21. Landa guneko emakume ekintzaileen lanak ikustarazteko ekintzak burutu (azokak, testigantzak aurkezteko bideoak...)								Zenbat jarduera garatu diren Zenbat emakumek parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...) Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)

5 programa: Emakumeen elkartegintza

5.1. Helburua: Emakumeen elkartegintza sustatu								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
22. Berdintasun ekintzak burutzeko aholkularitza eskaini udal elkarteei							Berdintasuna	Egindako aholkularitza kopurua, urtero
23. Herriko emakumeen elkartea edo sarea sortzeko							Berdintasuna	Zenbat jarduera garatu diren

dinamikak sustatu								Zenbat emakumek parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...) Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
-------------------	--	--	--	--	--	--	--	---

6 programa: Emakumeen oroimen historikoa

6.1. Helburua: Historian zehar izandako emakumeen ekarpenak berreskuratu								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO	ARLO	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	
24. Zeberioko emakumeen historia berreskuratzeko ekintzak burutu							Berdintasuna	Egindako ekintza kopurua

EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

7 Programa: Berdintasunaren aldeko baloreak sustatzen

7.1. Helburua: Herritarrek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
25. Berdintasunarekin inguruko egunetan sentsibilizazio kanpainak sortu.							Berdintasuna	Ekintza kopurua eta parte-hartze maila, sexuaren arabera.
26. Berdintasuna bultzatzeko programak lantzen jarraitzea haur eta gazteekin						-	Berdintasuna	Ekintza kopurua eta parte-hartze maila, sexuaren arabera. Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10) Berdintasunarekiko sentsibilizazio maila handitzea (1-10)
27. Estereotipo sexistak apurtzen dituzten Zeberiotarrak ikustarazteko sentsibilizazio ekintzak sustatu.							Berdintasuna	Burutu diren ekintza kopurua.
28. LGTBQ+ pertsonen eskubideetan aurreratzeko sentsibilizazio ekintzak egin.							Berdintasuna	Burutu diren ekintza kopurua.
29. Jaietako programazioan genero ikuspegia txertatzea eta ekintza bereziak antolatzea (berdintasunaren aldeko jokoak, lehiaketak, etab.).							Jai Batzordea Berdintasuna	Jaietan parte-hartzea sexuz, ekintzen arabera Genero ikuspegia txertatzeko burutako ekintzak

8 Programa: Kontziliazioa eta erantzukidetasuna

8.1 Helburua: Zainketak bizitzaren eta gizarte-erdiguneko dimentsio gisa aitortzeko bidean aurrera egin.								
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24			
30. Eskola eta gurasoen elkartearekin elkarlanean aitentzako formazio eta sentsibilizazio kanpainak martxan jarri, maskulinitateei, aitatasun arduratsuei eta erantzunkidetasunari buruz aritu daitezen.							Berdintasuna	Martxan jarritako ekimenak

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZIAK

9. Programa: Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa

9.1. Helburua: Indarkeriarik gabeko jarrera ereduak sustatzea eta emakumeenganako indarkeriazko jarreraren prebentzioan lan egitea.									
EKINTZAK	URTEA					URTEKO AURREKONTUA	ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK	
	20	21	22	23	24				
31. Beldur Barik programaren inguruko informazioa gazteen artean zabaltzea							Berdintasuna	Informazioa	zabalduta dagoen.
32. Erakundeen arteko guneetan parte hartu, indarkeria matxistaren prebentziorako politikak hobetzeari begira; batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiak, EUDELeK edo Emakundek burututakoak.							Berdintasuna	Parte hartzeko	guneen kopurua.
33. Logika binarioa eta genero hegemonikoaren normatibotasunaren ondorioz, LGTBIQ+ pertsonen bazterketa eta marjinazioa ekiditzeko kanpainak sustatu.							Berdintasuna	Kanpaina kopurua	
34. Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko egunaren aldarrikapena aurrera eramane eta konpromisoak adieraztea eta programa lantzea.							Berdintasuna		
35. Jailetako programazioan emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ekintzak antolatzen jarraitzea.							Berdintasuna Jai batzordea	Urteko ekintza kopurua eta parte-hartze maila, sexuaren arabera.	

10. Programa: Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen arreta eta babesa

10.1. Helburua: Babesa eta osoko arreta bermatu indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei.

EKINTZAK	URTEA					URTEKO	ARLO	ADIERAZLEAK
	20	21	22	23	24	AURREKONTUA	ARDURADUNAK	
36. Emakumeen kontrako indarkeria eta artatzeko erakundeen arteko Zeberioko behin betiko Protokoloa onartu.							Berdintasuna, alkatetza eta protokoloaren mahai teknikoa.	Protokoloa onartuta
37. Indarkeria Matxistaren aurrean jardunbide protokoloa herritarren artean zabaltu.								Zabaldutako informazio kopurua Herri mailan ezagutza maila (1-10)
38. Indarkeria matxistaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobetzeko udal protokoloaren etengabeko jarraipena eta hobekuntzak egin.							Berdintasuna eta protokoloaren mahai teknikoa.	Protokoloan txertatuko aldaketa kopurua
39. Indarkeria matxistaren gaineko prestakuntza eskaini indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak artatzen diharduten langileei.							Berdintasuna	Urteko parte-hartzea, sexuaren eta karguaren arabera. Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10) Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio maila (1-10)
40. Indarkeria matxista kasuetan eskura dauden baliabide eta zerbitzuen inguruko informazioa gida batean bildu.							Berdintasuna	Gida eginda

05. PLANAREN KUDEAKETA

Koordinazioa eta programazioa

Gizon eta emakumeen berdintasunerako Foru eta Tokiko Administrazioen 4/2005 Legearen 10. Artikuluan jasota dagoenaren arabera, erakunde horiek beren egiturak egokitu behar dituzte eta horietako bakoitzean gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako politiken programazio, aholkularitza eta ebaluazioaz arduratuko den organismo edo atal bat egon beharko da.

Plan honen ekintza programaren ondoriozko jarduera eta helburuak lortzeko, horren barneko sustapen, jarraipen eta ebaluaziorako egiturak ezarrita egon behar dira. Sustapenaren egitura Berdintasun Arloan kokatua dago eta Berdintasun teknikaria eta Berdintasun zinegotziak osatzen dute.

Berdintasun-teknikariak hainbat urteko esperientzia eta prestakuntza espezializatua du berdintasunean (1.200 ordu), eta 300 baino gehiago genero-indarkeriaren prebentzioan.

Honakoak dira Udaleko sustapen egituraren funtzioak:

- Urteko lehentasunak zehaztea.
- Jarduerak planifikatzea, dauden baliabideen arabera (ekonomikoak, langile arlokoak eta abar).
- Jarduerak martxan jarri eta ardurak banatzea.
- Jardueren jarraipena eta ebaluazioa.

Sustapen egiturak aldizkako bilerak ezarriko ditu, dagozkion jarduerak planifikatu eta martxan jartzeko.

Bestalde, berdintasun arloa aldi oro koordinatuko da, Euskara, Kultura... eta bestelako arloekin. Berdintasun Planaren jarraipena egingo da eta proposamenak eta iradokizunak jasoko dira.

Bestalde, Udalak erakunde arteko koordinazio egituretan parte hartzen jarraituko du, hala nola BERDINSAREA.

II. Planaren programaziorako, Aurreko hiruhilekoan Urteko Programa Operatiboak burutuko dira. Herritarren parte-hartze foroarekin eta udal barneko talde eragilearekin batera lan egingo da.

Planaren Ebaluazioa

Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egingo da, eta urteko memoria bat. Ebaluazioa hainbat mailatan egingo da:

- Burutze-mailari dagokionez: jarraipen kuantitatiboa egingo da, plan eragileari jarraituz, honako aldagaiak kontuan izanik:
 - Egina
 - Partzialki egina
 - Egin gabea
 - Egina baina ez planifikatua
 - Arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen prozesuaren indargune eta hobetzeko puntuak aztertuko dira, langile tekniko, politiko eta gizarte eragileei galdetuz. Honako eremuei emango zaie garrantzia: inplikazioa, lan eta koordinaziorako tresnak, komunikazioa, parte-hartze prozesuak eta abar.
- Eraginaren ebaluazioa: berdintasun politiken ondorioak aztertuko dira eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan burututako aurrerapenak neurtuko dira. Plan honen baitan planaren inpaktua neurtzea oso alor garrantzitsua izango da.
Prozesuaren eta eraginaren ebaluazioa burutzeko, galdetegiak, elkarrizketak eta abar erabiliko dira.

Bestalde, planaren jarraipenaren galdetegi elektronikoa betekoa da, Emakundek bere ebaluaziorako urtero eskatzen baitu.

Udal aurrekontua

II. Berdintasun Plana gauzatzeko aurrekontua urtean 18.985,00 €-ra igo da aurten, kontuan hartu gabe diru-laguntza posibleetatik etor litezkeen diru-sarrerak.

Laguntzak eta dirulaguntzak

Laguntzak eskatuko dira (Kultura, Hezkuntza, Hirigintza...), bai Eusko Jaurlaritzan, baita Bizkaiko Foru Aldundian ere, jarduerak burutzeko.